

PRENTSA OHARRA: 2025.05.07

Etxepare Euskal Institutuak itzulpenak sustatzeko hiru dirulaguntza-lerroren bidez bultzatuko du euskal literaturaren nazioartekotzea

- Institutuak **91.000 euro bideratuko ditu 2025ean nazioarteko argitalpen-merkatuetan euskal literaturaren presentzia indartzeko**
- Deialdi espezifiko bat plazaratu du euskarazko lanen frantseserako itzulpena, argitalpena eta zabalkundea sustatzeko
- Deialdi hauen bidez laguntza integrala eskaintzen du, nazioartekotze-prozesuaren fase guztietan eraginaz

Donostia, 2025eko maiatzaren 7a. – Euskal kulturaren nazioarteko zabalkunde eta proiektzioarekin duen konpromisoa berretsiz, Etxepare Euskal Institutuak hainbat laguntza-lerro plazaratu ditu euskal literaturaren itzulpena eta nazioarteko zirkulazioa sustatzeko helburuz. 2025ean 91.000 euro bideratuko ditu Institutuak, euskal letrei gure mugetatik kanpo bide berriak irekitzeko ahaleginean idazle, itzultzaile, argitaletxe eta agente literarioei laguntzeko.

Hiru laguntza-lerro, hiru helburu

Lehenengo laguntza-lerroak, **AT! Itzulpena: literatura, euskarazko lan osoen itzulpena eta argitalpena ditu ardatz**. 63.000 euroko aurrekontua du orotara, eta nazioartean euskal literatur lanak beste hizkuntza batzuetan argitaratu nahi dituzten argitaletxeei zuzenduta dago. Bi kasuistika jasotzen ditu: alde batetik, jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako lanak beste edozein hizkuntzataraz itzultzea; bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko egileek gaztelaniaz idatzitako eta argitaratutako lanak euskara ez den beste hizkuntza batera itzultzea.

Deialdia ekainaren 5era arte egongo da zabalik, eta nazioarteko katalogoetan euskal egileen presentzia areagotzea du helburu. Laguntzak lehiaketa bidez esleituko dira, deialdian jasotako irizpideei jarraituz, eta funtsak agortu arte. Proiektu bakoitzak gehienez 8.000 euro jasoko ditu, eta eskatzaile bakoitzak, gehienez, 12.500 euro. Itzulpen eta edizio lanetan aritzen diren pertsona fisiko zein juridikoek eska dezakete. Gaztelaniarako itzulpenetan, argitaletxe eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo kokatuta egon beharko du; bertan erroldatutako norbanakoek ere aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, betiere lana kanpoko argitaletxe batean plazaratuko bada.

Bigarren deialdia **lurralde frankofonoetan euskal kulturaren ikusgarritasuna sustatzea helburu duen Ça colle au Basque ekimenaren baitan** kokatzen da. Deialdi espezifikoa honek jatorriz euskaraz idatzitako lanen frantseserako itzulpena, argitalpena eta zabalkundea babesten du, eta Euskal Herriko nahiz atzerriko argitaletxeek, idazleek, itzultzaileek eta agente literarioek bultzatutako proiektuetara bideratuta dago. Urtero 20.000 euroko aurrekontua izango du, hiru urtez.

Prozesuak hiru fase izango ditu: lehenik, hautatutako pertsonen eremu frankofonoko argitaletxeak aztertuko dituzte; ondoren, lanaren lagin bat itzuliko da (beharrezkoa bada); eta azkenik, argitalpen-konpromisoa gauzatuko da argitaletxearekin. Lehen edizioa abuztuaren 15era arte egongo da zabalik. Hiru proiektu hautatuko dira, eta bakoitzak gehienez 9.000 euroko laguntza jasoko du.

Hirugarren lerroa, **AT! Itzulpena: literatura laginak, euskaraz idatzitako lanen pasarte edo laginen ingelesezko edo frantsesezko itzulpenak egiteko da.** Helburua da idazle, itzultzaile, argitaletxe eta agenteei lan horiek nazioarteko editore potentzialak aurkezteko materiala prest edukitzen laguntzea.

Deialdia otsailaren 3tik dago irekita eta guztira 8.000 euroko aurrekontua du. Idazle, itzultzaile, argitaletxe eta agenteek eskatu dezakete. Itzuli beharreko laginek ezingo dute jatorrizko lanaren %15 gainditu, eta itzulpen bakoitzak 400 euro arteko laguntza jaso ahal izango du.

Deialdien inguruko informazio guztia eta oinarriak eskuragarri daude Etxepare Euskal Institutuaren webgunean: www.etxepare.eus

Nazioartekotzerako laguntza integrala

Hiru dirulaguntza-lerro hauen —AT! Itzulpena: literatura, AT! Itzulpena: literatura laginak eta Ça colle au Basque— osagarri gisa, AT! Literatura deialdia ere zabalik dago apiriletik. Azken deialdi honen bidez, Etxepare Euskal Institutuak egile, itzultzaile eta argitaletxeei laguntzen die atzerriko azoketan, jaialdietan eta bestelako sustapen-ekitaldietan parte hartzeko mugikortasunean. Honela, euskal literaturaren nazioartekotze-prozesuaren zirkulua osatzen da, argitaletxeen interesa pizteko itzulitako laginetik hasi eta argitaratutako lanaren zabalkunderaino. Ikuspegi integral horrekin, Etxepare Euskal Institutuak euskal literaturaren presentzia bultzatu nahi du nazioarteko argitalpen-zirkuituetan.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus